



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

**Expte.: 08-3927**

**AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN JABETZAPEKO BASOETAKO BELARDIEN USTIAKETA  
ARAUTZEN DAUAN ORDENANTZA**

**2010**

**1. atala**

Ordenantza honen eremua Amorebieta-Etxanoko udalaren jabetzapeko basoetan ahuntz, behi, zaldi eta artabereentzako sortutako belardien aprobetxamendua da.

**2. atala**

Amorebieta-Etxanoko udalak bere mugartean dagozan pastuen aprobetxamendua baimendu ahal izango dau, Ordenantza honetan ezarritako baldintza eta zehaztapenetan.

**3. atala**

Belardien aprobetxamendua eskatu ahal izango dabe:

- a) Amorebieta-Etxanoko udalerriko abeltzainek.
- b) Nortasun juridikoa daukien udalerriko abeltzainen elkartek.
- c) Amorebieta-Etxanoko Udalak belardiak erabiltzea baimendu edota debekatu ahal izango deusie bazka-ahalmenaren arabera, udalerrri honetan erroldatuta egon ez arren, tradizioz Amorebieta-Etxanoko Udalaren jabetzapeko mendietako belardiak aprobetxatu izan dabezan abeltzain profesionalei.

**4. atala**

Onuradunak ondoko baldintza honeek bete beharko dabez:

- a) Adinez nagusiak izatea.
- b) Amorebieta-Etxanoko herri-errolan sartuta egotea.
- c) Bertan bizi, gitxienez, urtean 10 hilabetetan.
- d) Ahuntz, behi, zaldi eta artabereen esplotazio baten jaubea izatea.

Izate juridikoko jaube-alkartea izan ezkerro, kide guztiak bete beharko dabez puntu honetan jarritako baldintzak.

**5. atala**

Pastuen aprobetxamendua interesatuak eskatu beharko dau. Eskarian zera jarriko da:

- a) Izen-abizenak, lanbidea eta eskatzailearen helbidea.
- b) Pastuen aprobetxamendua eskatzearen zergatiak.
- c) Belardi honeetara joango diren buruen identifikazio eta zenbakia.
- d) Ordenantza hau bere puntu guztietan onartzearen konpromezua.

Eskariari Alkatzetaren egiaztagiria gaineratuko jako, bertan eskatzaileak Amorebieta-Etxanon daukon egoitza jasoz.

Aipatutako baldintzak betetzen ez dituen eskaririk ez da onartuko. Udala jabetu ezkerro betebehar honetatik edozein falta dala, eskatzaileari jakinaraziko deusio 10 egunetako epean zuzendu dagian, ohartaraziz horrela egingo ez baleu, eskaria beste eginbiderik gabe artxibatuko litzatekela.

**6. atala**



## **Amorebieta-Etxanoko Udala Bizkaia**

Udalak belardiak ganezka dagozala edo honeen erabilera txarra nabarituko baleu, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza sailari txostena eskatuta, abeltzantzan aritzen diren alkarte edo bizilagunek izango leukie lehentasuna.

### **7. atala**

Onuradunaren betebeharrak:

- a) Udalak jarritako epeetan belardiak erabili, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza sailak emondako txostenaren arabera. Ezarritako epeetatik kanpo, ezin izango da belardia erabili.
- b) Pastuak ez erabili ezarritako helburuetatik kanpo.
- c) Abereen osasunaz indarrean dagoen araudia bete eta jagoken saneamendu kanpainen barne izan. Bai abel-ustiaketan dagoen ganadua eta bai belardian sartuko dana saneatuta egon beharko da eta osasun-txartela daukon esplotazio batetik etorri behar izango da.
- d) Ekitaldi bakoitzerako udalak jarritako kanona edo beste edozein jarri.
- e) Komunitateko lanetan parte-hartzeko tenorea izatea eta sortutako helburuaz belardia mantentzeko kostuak ordaintzea.
- f) Hortarako sortutako Udala-Abeltzainak Batzordean parte hartzea. Batzordeak bere jarduera-araudia gauzatuko dau.
- g) Pastizalaren barruan ez itxidura edo alanbrearen bitartez lote-zatiketarik egin.

### **8. atala**

Udala, berez edo beste herri-erakundeekin lankidetzan, kanpoko abereak botako ditu, bere jaubeei erantzunkizunak eskatuz.

### **9. atala**

Udalak baimenak indargabetu ahal izango ditu ondoko zernolakoetan:

- a) Onduradunak belardia ez erabili edo gitxi erabiltzea.
- b) Onuraduna zigortu basoan egindako kalteengatik.
- c) Ordenantza honetan jarritako kanon edo beste tasak ez ordaintzea.
- d) Araudi honetan jarritako egoitza galtzea.
- e) Onuradunak atzera egitea.
- f) Baimendutako erabiletatik kanpo belardia erabiltzea.
- g) Edozein tituluaren bitartez erabilera-eskubidea aldatzea.
- h) Amorebieta-Etxanoko udalaren aurrean edozein motatako zorpideak izan.
- i) Amankomunean egiten diren lanetan parte ez hartzea eta pastizalaren mantenimendurako behar diren kostuak ez ordaintzea.
- j) Jarraipen Batzordean parterik ez hartzea.
- k) Belardirako diren lurrei beste erabilera bat emotea, herrionuragaz lotutako arrazoiengatik, edo udalak onartutako proiektuetan jasotako lanak burutzeko.

### **10. atala**

Udalak emondako baimena eskualdaezina izango da.

### **11. atala**

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza sailak eta udalak bidezkoak ikusten dabezan ikuskapenak ahal izango dabe edozein momentutan.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**12. atala**

Belardian dagozan bidezorrak errespetatu beharko dira.

**13 artikulua**

**Belardia erabiltzeagatik udalari urteroordaindu behar zaion kanona Udalbatzak erabakiko du, beti ere, nekazaritzako irizpideakaintzat hartuz.**

**a) Belardi irekiak**

**Ardiak eta ahuntzak:**

**Gutxienez 33 ardi/ahuntz:**

— Udalerrian bizi den abeltzaina: 11,28 €.

— Udalerrian bizi den abeltzain mistoa: 16,94 €.

**Abelburu bat gehiago izateagatik:**

— Udalerrian bizi den abeltzaina: 0,31 €.

— Udalerrian bizi den abeltzain mistoa: 0,52 €.

**Behiak-behorrak:**

**Gutxienez, 5 abelburu:**

— Udalerrian bizi den abeltzaina: 11,28 €.

— Udalerrian bizi den abeltzain mistoa: 16,94 €.

**Abelburu bat gehiago izateagatik:**

— Udalerrian bizi den abeltzaina: 2,10 €.

— Udalerrian bizi den abeltzain mistoa: 3,04 €.

**b) Belardi itxiak: 10,28 € abelburu bakoitzeko.**

**14. atala**

Sortutako belardiaren ustiaketa eta erabilerari buruz Jarraipen Batzorde bat sortuko da, kontsulta, aholku eta koordinazio organu legez arituko dana.

Jarraipen Batzorde hau belardiak erabiltzeko baimendutako eta alkarteak izendatutako hiru abeltzain osotuko dabe. Batzordean parte hartuko dabe, ahots baina boto-eskubiderik gabe, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza saileko ordezkari batek.

Jarraipen Batzordeak bere eratze-jardunean bere araudi eta funtzionamendu arauak ezarriko ditu, Udalak onartuko dituenak.

**15. atala**

Sortutako belardiaren gehienezko aprobetxamenduaren baldintzak jartzeko, udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza sailarekin lankidetzan, aldizka ikerketa bat egingo dau. Ateratako ondorioak ondoko epeetan belardia administratzeko oinarritzat hartuko dira.

**16. atala**

Udal belardietan dagoan ganadu guztiak udaleko krotala eroan beharko dau.

**AZKEN XEDAPENA**

Amorebieta-Etxanoko Udalak gai honetaz ondoko udalekin itun eta hitzarmenak sinatu ahal izango ditu.

**Ordenantza hau 2005eko uztailaren 29an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2005eko azaroaren 30ean egin zen Ohiko Osoko Bilkuran. Ondoren, behin-betiko aldatu zen, lehenengoz 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an., eta bigarrenez, 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an.**

**Aldaketa hau 2008ko urriaren 17an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2008ko abenduaren 04an. 2009ko urtarrilaren 01ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean. (BAO 251.zk. 2008, abenduak 31. Asteazkena).**